

EDUYOGA eta JOLAS KOOPERATIBOAK

Eibarko Udalak Jolas kooperatiboen eta Eduyogako tailerra antolatu du.

- **Joko kooperatiboak:** agresibitate adierazpenak murriztea eta egokiak indartzea du helburu. Lankidetzeta, komunikazioa eta elkartasun jarrerak sustatzea bilatzen duten proposamenak dira. Besteekin topatzea errazten dute.
- **Eduyoga:** Haurrentzako eta familiako Yoga – Jokoa. Balioei laguntzeko eta postura-ohitura egokiak berreskuratzeko asmoa du.

Tramitatzailea: Haurreria eta Gazteria.

Hartzaileak: 2-4 urteko haurrak (2014-2016 urteetan jaiotakoak).

15€ (Eibarren erroldatuak)

30€ (Eibartik kanpokoak)

Ikastaroaren ordainketa: Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

Eskaera egiteko tokia:

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Eskaera egiteko epea: azaroaren 5etik 12ra.

Haurrak heldu batengaitik lagunduta egon beharko dira tailerraren iraupen osoan zehar.

Nork emango du: Ainhoa Muniategui.

Non: Portaleako 3. solairuan.

Datak: azaroak 17, 24 eta abenduak 1.

Ordutegiak:

1. txanda: 17:00etatik 17:45etara.
2. txanda: 18:00etatik 18:45etara.

Ikasle kopurua: gutxienez 5 ikasle ikastaroa burutzeko eta gehienez 15 ikasle.

Ikastaroaren hizkuntza: euskaraz.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- **“IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA”** izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.eus eskuragarri).
- Aitaren, amaren edo tutorearen **NANaren** edo balio bereko dokumenturen baten kopia. NAN dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.
- Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), **azaroaren 14an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **azaroaren 14an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean (www.eibar.eus), egongo da **azaroaren 14an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan.

